

Herriko kontseiluaren 2019.02.01ko bilkura

Hor zirenak : Jean-Michel Coscarat, Marie-Agnès Haristoy, Antton Curutcharry, Lisa Dumoulin, Daniel Ithurburua, Bernadette Mousquès, Eñaut Larre, Isabelle Arangoits, Betti Bidart, Frantxoa Mocho, Annie Juantorena, Betti Olçomendy, Jean-Baptiste Lambert, Christelle Errecart, Marie-Baptiste Etcheverry

Hor ez zirenak : Agnès Gorostiague (ahalordea Bernadette Mousquès andereari), Monika Indart (ahalordea Antton Curutcharry Jaunari), Sébastien Clauzel (ahalordea Frantxoa Mocho jaunari), Dominique Mendibil.

Gai ordena :

- 1. Inbestizamenduen gastuen ordaintzea buxet nagusia bozkatu aintzin :** Buxet nagusia bozkatu aintzin heldu diren inbestizamendu gastuen pagatzeko, Herriko kontseiluak baimena emaiten ahal du Auzapezari inbestizamenduan gastuen pagatzea jazko buxeteko laurdenaren mugarekin (454814€) Herriko kontseilua, aho batez Inbestizamenduen gastuen ordaintzea buxet nagusia bozkatu aintzin alde agertu da.
- 2. 2019ko Bermea France Locale agentzia :** 2017an, Herriak milioi bat euroko mailegu bat egin du France locale agentziari. Urteroz, Herriak behar du berme bat eman France local agentziari. Herriko kontseilua, aho batez, bermea hartzearen alde agertu da.
- 3. Euskal hirigune Elgarkoaren (EHE) eskumenen hartze onartzea :** 2018ko abenduaren 18an, EHE-ko Kontseiluan, EHE-k bozkatu du eskumen berri batzuen hartzea : euri urak, Euskal mendia eta garapen iraunkor aldeko lankidetzaren proiektuen animatzea, estrategia eta ekintza., jan-molde sano eta iraunkor baten sustatzea, laborantza lurren alde buruzko estrategia eta ekintza . Herriko kontseilua aho batez eskumen berri horren alde agertu da.
- 4. DETR diru langutza eskaera errugbi zelaiarentzat :** Errugbi zelai arraberritu behar da normetan izan dadin, errugbiko federazioak galde egiten duen bezala. Obren debisa 174202€ eta 202000€ artean kokatzen da. DETR diru langutza bat presentatua izanen da. Diru laguntza hori %20 eta %40 fresen parte hartzen ahal du. Herriko kontseilua, diru langutza galde egiteko alde agertu da.
- 5. Baserialdeko elektrika :** Programa desberdinak abiatuak dira : Iparragerreko altxaltze postuaren hornitzea eta hedatzea, Orangeko ingeniari-tza zibil programa eta argigailu publiko programaren. Hedatzearen debisa 11554€koa da eta herriaren parte 2278.19€koa da. Argigailuen buruz, debisa 3808,04€koa da eta Herriaren parte 1983.15€koa. Azkenik, Orangeko ingeniari-tza zibil programaren debis 3803.41€koa da eta herriaren parte 3803.41€koa. Herriko kontseilua, Iparragerreko elektrika obren alde agertu da.